



BALIO PROPOSAMENA:

Leioan aniztasun funtzionaleko pertsonen futbol klub bat egingo dugu. Gure herrian eta alboko herrietan ez dagoelako horrelako futbol talderik eta pertsona hauek futboleant aritzeko eskubidea daukatelako.

Talde honekin hainbat arlotan sustatuko dugu aniztasun funtzionaleko pertsonen **inklusioa**, hau da, pertsona hauei futboleant presentzia berbera emango diegu. Beste alde batetik, pertsona hauen artean **kirola egiteko gogo**a sustatuko dugu, askotan pertsona hauek pentsatzen dute ez dutela gaitasunik kirola egiteko eta klub honekin haien gogo suspertuko dugu. Gainera, haien artean **talde-lana** ere landuko dugu, azken finean futbola taldean aritzeko kirol bat da eta honekin batera individualismoa deuseztatuko dugu. Honen bidez, lagun berriak egingo (**sozializazioa**) dituzte eta zelaitik kanpo ere ekintza ezberdinak egin ahal dituzte hala nola, taberna batera joatea elkar hobeto ezagutzeko. Proiektu honen bidez gaur egungo gizarteant dauden baloreak sustatuko ditugu: errespetua, tolerantzia, responsabilitatea...

Proiektu hau nahiko berezia da beste futbol klubeekiko, aniztasun funtzionala duten pertsonak bakarrik jolastuko dutelako. Beraz, pertsona hauen artean arrakasta handia izango du klub bakarra izango garelako **lehiakiderik gabe**.

Leioako udalak polikiroldegi berri bat egingo du Leioan Pinosoloko igerilekuen alboan, orduan Udalarekin hitz egin ostean polikiroldegiko futbol zelaian jolasteko eta entrenatzeko baimena eman digute. **Instalazioak** ezin hobeak izango dira berri-berriak izango direlako. Klubeko jokalariek bakoitzak **tasa** bat ordaindu beharko dute urtero, **125 euro** zehaz-mehatz.

Honetaz aparte, partiduak ikusi nahi dituzten pertsonen 5 euro ordaindu beharko dituzte, diru hori **klubaren garapenerako** izango da, adibidez, instalazioak hobetzeko, material berria eskuratzeko... aniztasun funtzionaleko pertsonen futbol liga, futbol 8-ko futbol da, hau da, 8 pertsonen taldeak eta futbol 8-ko zelaiaren nerruak erabiliz (68mx45m).

